

2017-02-22ko EZOHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2017ko otsailaren 22an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ezohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, Udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira, gai-zerrenda aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Jose Ignacio Imaz Bengoechea, Ainhoa Ugalde Gorostiaga eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin udal-idazkariak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa. Jarraian, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (2017-01-26; 2017-01-31).

Alkateak adierazi du 2017ko urtarrilaren 26ko aktan jasota utzi nahi duela proiektua (haurtzaindegia) ekainekoa dela.

Udalbatzak 2017ko urtarrilaren 26ko eta 2017ko urtarrilaren 31ko akten zirriborroak onartu ditu, aho batez.

BIGARREN GAIA

2017/19tik 2017/29ra ARTEKO ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA

Alkateak 2017/19 dekretutik 2017/29 dekretura artekoak azaldu dizkio udalbatzari.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Ainhoa Ugalde zinegotziak galdetu du zergatik lehen Landarrik ematen zuen hilerri-zerbitzua orain Hargoik ematen duen.

Alkateak erantzun dio beste enpresa baten proposamena ikertu eta enpresa berria aukeratu zela.

Ainhoa Ugalde zinegotziak esan du Alkateak beti dioela gaiak batzordean tratatu behar direla, eta oraingoan ez dela horrela izan. Gai garrantzitsua da, eta horregatik eskatu du hurrengoan batzordera ekar dezatela.

Alkateak erantzun dio enpresa horren proposamena hobea zela eta aurreneko enpresari ere eskatu zitzaioa.

Idazkariak adierazi du aurreneko enpresari ere eskatu zitzaioa 2017rako proposamen berria, baina ez zuela epean aurkeztu, eta, gainera, lurperatzeak izan zirela; horrenbestez, zerbitzua prestatu eta enpresa aukeratu beharra zegoela.

Olaia Nieto zinegotziak galdetu du prestatutako zerbitzuak ordaindu diren edo ez.

Idazkariak erantzun dio badela 2017ko enpresaren (Landarri) kuotari uko egiten dion dekretu bat. Ustez 2017rako kuota zen, baina enpresakoek esan zieten gaizki zegoela faktura eta 2016ko zerbitzua zela. Gero, faktura aldatu eta ordaindu egin zen.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du kontratu hori ez zela batzordean tratatu eta horregatik Alkatearen Dekretuen kontra bozkatuko dutela.

Argitu dute gaiaren berri eman nahi zutela soilik.

HIRUGARREN GAIA

IRURAKO UDALEKO 2017. EKITALDIRAKO AURREKONTU PROIEKTUARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

2017ko jarduera ekonomikorako Udalaren Aurrekontu Orokorren proiektuaren berri eman da. Udalaren beraren aurrekontua da soilik, izan ere, Udalak ez dauka Erakunde Autonomorik, ez beste edozein erakunde edo enpresarik ere. Udaleko lehendakariak aurkeztu du proiektua, eta idazkari kontu-hartzaileak txostena egin du. Horrekin batera doa Aurrekontua Betearazteko Araua ere.

Se da cuenta del Proyecto de Presupuesto General de este Ayuntamiento para el ejercicio económico de 2017. El presupuesto comprende solamente el del propio Ayuntamiento, al no haber Organismos Autónomos u otras Entidades o empresas municipales. El Proyecto es presentado por la Presidente de la Corporación y está informado por la Secretaría-

Intervención. Se adjunta también la Norma de ejecución presupuestaria.

Aurrekontu Orokorra aurrekontu eta kontabilitate gaien inguruan indarrean dauden legeen arabera egin da, hala ezartzen baitu abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzkoak. Hasierako defizitik gabe osatu da eta Udalbatzari aurkeztu zaio, onartu, itzuli edo zuzen dezan.

Gainera, kontuan hartzen dira Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzko arauak eta arauak betetzen direla dioen idazkari kontu-hartzailearen txostena.

Halaber, Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informazio Batzordeak, 2017-02-16n egindako bileran, horri buruzko irizpena eman dio.

Horren aurrean, haren edukiaren inguruan azalpenak eman eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzak honakoa erabaki du, aldeko 5 botorekin (EAJ/PNV) eta aurkako 3 botorekin (EH Bildu):

ERABAKIA

Lehen.- 2017rako finantza kanpoko gastuaren muga onartzea: ez da ezarri (Gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko da 2017ko aurrekontua likidatzean).

Bigarrena.- Irurako Udalaren 2017ko Aurrekontuari hasierako onarpena ematea. Udalaren beraren aurrekontua da soilik. Hona hemen gastuen eta sarreraren laburpena, kapituluka:

El Presupuesto está formulado de acuerdo con la legislación en vigor en materia presupuestaria y contable y sobre todo, de acuerdo con la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Se ha formado sin déficit inicial y se presenta al Pleno de la Corporación, para su aprobación, devolución o modificación.

Además, se tiene en cuenta la legislación en materia de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera y con informe de la Secretaría-Intervención de que se cumple la misma.

Así mismo la Comisión Informativa de Cuentas, Hacienda y Administración, en sesión celebrada el 16-02-2017, ha dictaminado la misma.

Ante ello y dadas las aclaraciones oportunas sobre su contenido y previo debate, la Corporación acuerda por 5 votos a favor (EAJ/PNV) y 4 en contra (EH Bildu), lo siguiente:

ACUERDO:

Primero.- Aprobar para 2017 el límite de gasto no financiero: No se establece (El cumplimiento de la regla de gasto habrá de verificarse en la liquidación del presupuesto de 2017).

Segundo.- Aprobar inicialmente el Presupuesto de 2017 del Ayuntamiento de Irura. Está formado únicamente por el del propio Ayuntamiento y comprende el siguiente resumen por capítulos:

Sarrerei dagokionez:

KAPITULUAK	IZENA	EUROAK
1	Zuzeneko zergak	621.000,00
2	Zeharkako zergak	30.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	276.000,00
4	Transferentzia arruntak	1.163.000,00
5	Ondarezko sarrerak	16.000,00
6	Inbertsio errealak inorenganatzea	60.000,00
7	Kapital-transferentziak	0,00
8	Aktibo finantzarioak	1.000,00
9	Pasibo finantzarioak	500,00
SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA		2.167.500,00

Gastuak, bestalde:

KAPITULUAK	IZENDAPENA	EUROAK
1	Pertsonal-gastuak	847.000,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	584.550,00
3	Finantza-gastuak	3.800,00
4	Transferentzia arruntak	335.700,00
6	Inbertsio errealak	319.950,00
7	Kapital-transferentziak	75.000,00
8	Aktibo finantzarioak	500,00
9	Pasibo finantzarioak	1.000,00
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA		2.167.500,00

Ez da Aurrekontu Orokorra deskribatu errepikapen hutsa delako.

No se describe el Presupuesto General por ser mera repetición del mismo.

Honela, 2017ko jarduera ekonomikorako Aurrekontua Betearazteko Udal-araua onartu da.

Así mismo se aprueba la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria del ejercicio económico de 2017.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, eta, horretarako, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean

Segundo.- El expediente se somete a información pública, mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial del Territorio Histórico

iragarkia jartzea hamabost egun balioduneko epean, erreklamazioak egin ahal izateko.

de Gipuzkoa, por el plazo de 15 días hábiles, para la presentación de reclamaciones.

Aurrekontua onartutzat joko du Udalak, aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Si no se presentan reclamaciones en dicho periodo, se considerará definitivamente aprobado.

Behin betiko onartutako aurrekontu orokorra Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, kapituluka.

El presupuesto general, definitivamente aprobado, se publicará por capítulos en el Boletín Oficial del Territorio Histórico.

Behin betiko onartutako aurrekontuaren kopia bat bidaliko dio Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari. Eta gero hark administrazio eskudunei bidaliko die.

Una copia del Presupuesto definitivamente aprobado, se remitirá a la Diputación Foral de Gipuzkoa, que será la encargada de enviarlo a las Administraciones competentes.

Hirugarrena.- Aurrekontua dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, aurreko atalean aurreikusitako eran argitaratu ondoren.

Tercero.- El presupuesto entrará en vigor en el ejercicio correspondiente, después de su publicación en la forma señalada anteriormente.

Gainera, aurrekontuaren eta haren aldaketen kopia bat eskura izango dute herritarrek, informazio nahikoarekin, behin betiko onartzen den unetik ekitaldia bukatu arte.

Además una copia del presupuesto y sus modificaciones, estará a disposición de la ciudadanía, para que tengan la suficiente información, desde su aprobación hasta el final del ejercicio.

Alkateak honela adierazi du:

--2017ko aurrekontua 2.167.500 eurokoa da.

--Gastuak aztertzen hasiko gera.

--1. Atalean, personalaren gastuetan 816.000 eurotik 847.000 euroa pasatzen gera, hortaz %3,8ko igoera daukagu. Aurrekontu osoaren %39,08.

Alde batetik soldata igoera aurikusten da eta oraindik onartu gabe egon arren %1,5 eko igoera sartu degu.

Bigarrena, garbitzaile bat bajan dago, 10.000 euro sartu ditugu, bazpaere ordezkorentzat, ez dakigu zenbat denbora egongo den, ebakuntza egin diote eta agian prozesua luze xamarra izan leiteke.

Hirugarrena, aukera izan degu, Lanbide eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako langabezin programan sartzea. Diru laguntza bat aprobetxatuz

aukera eduki degu langabezi, emakume herritar batei ia 4 hillabeteko lana ematea. Proiektu onetako 9.000 euro jarri ditugu.

--2. Atalean gastu arruntetan 604.200 eurotik 584.550 euroa pasatzen gera, gastua %3,25 gutxiago izango da. Asmoa da urtero hantzeko gastua egitera eta parekoa izatea. Ez urte batean asko gastatu eta beste batean azkoz gutxiago. Ekilibrio bat billatzea, inbertsiotarako diru kopuru bat gelditzeko. Aurrekontu osoaren % 26,97.

--Jesten diren partidak, edifizion mantenimendua, ibilgaluen konponketa eta bulegoen tresnaria.

--Mantentzen diren partidak, bulegoko materiala, edifizion hornidurak, telekomunikazioak, aseguruak, tributua, aholkularitza, kultur arloan jaiak, kultura eta kirol ikastaroak, dietak.

--Igotzen direnak, azpiegituran mantenimendua %12,5ko igoera izango da, bertan asmoa da industria gunea antolatzen hastea, bai trafiko aldetik, aparkalekuak margotu eta argi indarra aldatu, energia aurrezteko interesekin eta argi indarren fakturak jesten jutea, tramoka egin beharko degu, gunea haundia delako. Kultura aldetik, Gazteria, nerabe eta umeen partida %11,1eko igoera. Gizarte Zerbitzuetako partida, eta hemen azpimarratuko nuke, 10.000 euro geiago jarri ditugula, %14,6ko igoera suposatzen du.

4. Atalean, transfrerentzietan, 320.000 eurotik 335.700 euroa pasatzen gera %4,9ko igoera. Aurrekontuaren % 15,49.

--Hiri hondakinetan igo egin degu kantidadea, oraindik ez dakigu zenbat ordaindu beharko degun, ez daukagu erantzunik mankomunitate aldetik. --Tolosaldea Garatzenetik, bai ekonomia aldetik bai Ingurumena aldetik jetsiera bat dago

--28 Kanala eta Galtzaundiko diru laguntzak jetsi egin ditugu.

--Loatzo Mankomunidadeetik momentuz lehengo urteko kopuru berdiña ordaintzeko esan digute, orain egin behar delako ordainketa. Dena den urteko kantidadea ez dakigu zenbatekoa izango dan.

--Mantentzen dira, Tolosaldeko Mendi Nekazaritza, Eudel, Uema, Euskera ikasteko diru laguntzak.

--Gizarte arloan, zaharren elkarteari ematen diogun diru laguntza eta Euskal Fondoari.

--Hezkuntzan, ikastolari ematen diogun 0-2 urteko umentzat eta eskola kirolarentzat.

--Kultura aldetik, Ametsa pilota elkarteari.

--Beste bi diru laguntza berri sartu ditugu, bat kultura aldetik, Irurako dantza taldea sortzen hari den elkarteari 5.000 euro eta Gure Esku Dago 600 euro.

--6. Atalean, Inbertsiotarako 319.500 euroko aurrekontua daukagu %18,07 gutxiago, konparatzen badegu 2016an gastatutako kantidadearekin. 390.000 eurokoa izan baizen. Aurrekontuaren % 14,76.

Proiektu nagusiak hauek dira.

--Alde batetik, Kale Nagusia 25-29 urbanizazio berria. Proiektu osoa 295.000 eurokoa da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Ur Kontzorzioak emango dituen diru laguntzari esker aurikusten degu 110.000 euro izango dela udalak ordaindu behar duen kantidadea. Bertan espaloia berritzea, espaloia zabaldu, aparkaleku bat edo beste ere atera, erdiko mediana kendu, zebra bidea altxa... Denok dakigun bezela trafiko haundia jasaten degu, abiadura haundiarekin eta neurri hauek artuta, ikusiko degu hobetzen den, zaila daukagu baina aleginak egin behar ditugu.

--Haurreskola berritzea, 280.000 euroko proiektua da eta Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak onartzen badizkigu, eskaera eginda dago, 147.950 euroko gastua aurikusten degu. Lehentasuneko proiektua ikusten degu, herriko eraikin publikoa libratu egiten dela ikusita, aukera egokia ikusten degu bertara pasatzea. Hobekuntza batzuek edukiko ditu, adi bidez irisgarritasun aldetik, sarrera, irteerak asko mehoratuko du, haur parkea ere bertan dago, horrek esan nahi du haurrak jolasteko garaien bere espazioa bertan edukiko dutela, kanpoa, plazarano atera gabe eta instalakuntza aldetik ere bai. Beste aldetik, aldaketa onek suposatuko du orain ordaintzen hari geran alokairua eta gastuak 16.000-17.000 euro aurrestuko ditugula.

--Ludoteka berria antolatzeke, altzariak 7.000 euro.

-- Kaleak garbitzeko barredora edo garbigalu berria, leasing bidez artuko degu eta aurten 26.000 euro jarriko ditugu.

--7. Atalean, Irurako Ikastolari ematen diogun 75.000 euro. Aurrekontuaren % 3,46.

--- Sarrerak aztertzeke garaien, ikusten degu,

--Zuzeneko zergatan aurreikusten degu igoera bat egongo dela, 588.000 eurotik pasatzen gera 621.000 euroa % 5,6 eko igoera. Etxe berriak daudela eta, IBiko zergagatik sarrera haundiagoa izango degula aurikusten degu. Beste aldetik IBiren aldaketa eginda da gero ikusten degu asmatu egin genuela zerga batzuek beste parekatzea, sarrerak igualtsu gelditu delako. Hondakinen zergak %12,5eko igoera izango du eta beste gustiak mantentzen dira.

--Transferentzi arruntetan ere igoera bat ikusten degu 1.134.000 eurotik 1.163.000 euroa %2,55eko igoera. Foru Aldundiko fondoa aurreikusten degu 31.000 euro gehiago izango dela 2016an baino. Diru laguntzak ere badauzkagu.

Ainhoa Ugalde zinegotziak EH Bilduren izenean adierazi du bere taldeak EAJ/PNV taldeari proposamena luzatu diola eta han jasotako gaiak argitu nahi dituela.

Alkateak erantzun dio gaia batzordean tratatu behar zela eta ez dela horri buruz eztabaidan aritzeko une egokia.

Ainhoa Ugalde zinegotziak erantzun dio hiritar orok bezala aukerak azaltzeko eskubidea duela, eta ez hori bakarrik, duela zenbait hilabete aurrekontuak aurkezteko eskatu zutela eta gero denbora gutxi izan dutela horiek aztertzeko, eta, gainera, astebete bakarrik eduki dutela herriari proposamenei buruz galdetzeko. Agian hurrengo urtean urtarrilaren hasieran aurkeztu beharko direla eta bi hilabete utzi horiek aztertzeko.

Alkateak erantzun dio agian hurrengo urtera begira batzorde bat egin beharko dela aurrekontuak azaltzeko eta ondoren beste bat proposamenak eztabaidatzeko.

Mikel Gotzon Iturbe zinegotziak esan du beraiek talde baten ordezkariak direla soilik, eta, beraz, ezin dutela batzordean dena eztabaidatu edo bozkatu taldeak aurretiaz gaiari buruz esatekoak dituenak entzun gabe.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du sinesgaitza egiten zaiola aurrekontuak eztabaidatzeko aukera ez izatea, eta idazkariari galdetu dio osoko bilkuran horri buruz eztabaidatzeko eskubiderik ba ote duten.

Idazkariak baietz erantzun dio.

Ainhoa Ugaldek bere taldearen izenean adierazi du aurrekontuan ez daudela bakarrik gastuak, baita sarrerak ere, eta zer proposamen dituzten hasiko dela azaltzen:

-Ohiko bizilekuak ez diren etxebizitzetarako erreklamoak kentzearen eta beste zerga batzuk igotzearen kontra.

-San Migeleko antzinako Zarretxe lokala berritzeko obra egitea.

-Frontoian obra batzuk egitea: banaketa, intsonorizazioa...

-Euskararen arloan murrizketarik ez egitea. Gastua jaitsi da. Pentsaezina iruditzen zaio Irura bezalako herri batean euskarari bideratutako gastuak igo beharrean jaitea: Kontseiluari zero, Gu ere bertsoan 3.000 eurotik 2.000 eurora... eta murrizketak izatea euskara-saioetan eta ez beste saio batzuetan.

Alkateak erantzun dio euskararen arloan diru-laguntzetarako dirua jaitsi baino beste arlo batzuetan mantendu dela.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du izugarria iruditzen zaiola PNV bezalako alderdi batek euskararen arloan gastua jaitea.

-Errepideetan sakanguneak jartzea sarreretan abiadura jaisteko.

-Biomasa sistema jartzea Udaleko eraikinean energia berritzailea sustatzeko.

-Udalbatzari ekarpena ordaintzea.

Hauek direla EH Bilduren proposamenak eta gainera iruditu zaiola PNVkoak minduta daudela horiek batzarrera ekarri izanagatik.

Alkateak erantzun dio argi utzi nahi duela orain ez dagoela proposamenak aztertzeke betarik eta ezberdin jokatu dela datorren urteko aurrekontuei begira.

Jose Ignazio Imaz zinegotziak esan du haren taldeak hamabi egun izan dituela aurrekontuak aztertzeke, eta bitartean gobernuko taldeak bi hilabete izan dituela aurrekontuak prestatzeke, udal teknikarien laguntzarekin gainera. Bestalde, galdetu du nork azaldu duen negoziatzeko nahia, PNVk edo Bilduk.

Alkateak erantzun dio euskararen gastuak hobetzeko gaia aztertuko dutela.

Ainhoa Ugalde zinegotziak esan du euskara-saioek behintzat joan den urteko aurrekontua izan behar duela, KPI gehituta.

Eta bozketa egin aurretik Alkateak Udal-teknikari guztiei eskerrak eman dizkie aurrekontuak prestatzen laguntzeagatik.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO UDALEKO 2017. EKITALDIRAKO LANGILEEI ETA LANPOSTUEN ZERRENDARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

2017ko Aurrekontuarekin batera 2017ko Irurako Udaleko langileen eta lanpostuen zerrenda aurkeztu dira.

Con el Presupuesto de 2017 se presenta la Plantilla y la Relación de Puestos de Trabajo de 2017 de este Ayuntamiento.

Kontuei, Ogasunari eta Administrazioari buruzko Informazio Batzordeak, 2017-02-16n egindako bileran, horri buruzko irizpena eman dio.

La Comisión Informativa de Cuentas, Hacienda y Administración la ha dictaminado en la reunión el 16-02-2017.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hartu du honako:

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ERABAKIA

ACUERDO

Lehenengoa.-
onarpena ematea.

Behin-behineko

Primero.- Dar la aprobación provisional al mismo.

Bigarrena.- Espedientea eta Udal Aurrekontua jendurrean jartzea, eta, horretarako, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, erreklamazioak egin ahal izateko.

Segundo.- Someter el expediente a información pública, junto con el Presupuesto municipal, mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, al objeto de poder presentarse reclamaciones.

Espedientea behin betiko onartu dela joko da jendurrean jarritako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada. Behin betiko onartuz gero, langileen era lanpostuen zerrendak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Se dará por aprobado definitivamente el expediente, si no se presentan reclamaciones en el periodo de información pública. Una vez definitivamente aprobado la Plantilla y la Relación de Puestos de Trabajo serán publicados en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

BOSGARREN GAIA

KALE NAGUSIKO 25-29 URBANIZAZIOA BERRITZEKO LANEI BURUZKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Irurako Udalaren arteko hitzarmenaren xedea da proiektu honek jasotzen dituen lanak gauzatu eta finantzatzeko konpromisoak ezartzea: Iruran, GI-3650 errepidearen zeharbidean, Kale Nagusia 25-29 hiritartzeko proiektua". Hitzarmenak jasotzen dituen balditzetako bat hau da: Gipuzkoako Foru Aldundiak bere eskumeneko gaiei dagozkien zatiak finantzatzeko ditu, eta, gehienez ere, 119.786,79 euro ordainduko ditu.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hartu du honako:

ERABAKIA

Lehena.- Hitzarmena onartzea.

Bigarrena.-Irurako Udaleko Ana Jesús Leunda Gurruchaga alkateari baimena ematea hitzarmen hori betetzeko beharrezko ekintzak, erabakiak eta ebazpenak gauzatzeko.

SEIGARREN GAIA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2013ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Irurako Udalbatzak etxez etxeko laguntza zerbitzua kontratatzea erabaki zuen eta Baldintza Ekonomiko eta Teknikoak onartu zituen.

Ondoren, 2014ko otsailaren 11ko 21/2014 Alkatetza Dekretuaren bidez, kontratua Ilarki enpresari behin betiko esleitzea erabaki zuen.

Zerbitzuaren iraupena bi urtekoa zen, 2014ko martxoaren batetik kontatzen hasita, eta urtero luzatu ahal zitekeen, gehienez ere beste bi urtez.

Udal-zerbitzuaren txostena ikusita, udalbatzak aho batez hartu du honako:

ERABAKIA

Ilarki enpresarekin etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua urtebete luzatzea, 2018ko martxoaren 1era arte hain zuzen.

ZAZPIGARREN GAIA

UEMAREN 2017KO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2017ko urtarrilaren 14an, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2017rako kuotak onartu zituen.

Irurako Udala UEMAko kidea izanik, udalbatzak aho batez onartu du honakoa:

2017rako kuota, 6.408 eurokoa, onartzea eta ordaintzea.

ZORTZIGARREN GAIA

TOLOSALDEAKO GURE ESKU DAGO TALDEAREN DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Argi dago zein den Tolosaldeako Gure Esku Dago taldearen lan-ildoaren oinarria: eskualdeko bizilagunen beharrari abagunea eman eta horren zilegitasuna bultzatzea, herritarrak abian jartzea, orain arte lortutako atxikimendu pertsonalez haratago Tolosaldeako herritarrok giltzarri izateraino, tantaz tanta, botoz boto... eta etorkizuna irudikatzea martxoaren 19an. Horretarako, beraz, erakunde publikoaren laguntza eskatzen du.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

600 euroko diru-laguntza ematea.

BEDERATZIGARREN GAIA

MARTXOAREN 8KO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Martxoak 8: ordezkaritza orekatu baterako 8 printzipio

“Emakume gutxi daude ordezkaturik udal-eremuan erabaki politikoak hartzen direnean, eta tokiko politikan berdintasuneko sarrera eta partaidetza izateko zailtasun espezifikoak dituzte”. Hori jaso zuen Inger Linge¹ Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuaren 31. saioan aurkeztutako txostenean. Kongresua urriaren 20an egin zen, eta emakumeen tokiko eta eskualdeko parte-hartzeari eta ordezkaritza politikoari buruzkoa izan zen.

Edozein gizarte demokratikoren aurretiko baldintza bat da erabakiak hartzerakoan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua izan dadila. Emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunean horrelaxe baieztatzen da, eta tokiko gobernuei honakoa eskatzen zaie: beharrezko neurriak eta estrategiak har ditzatela, emakume eta gizonen ordezkaritza eta partaidetza orekatua sustatzeko erabakiak hartzen diren tokiko esparru guztietan.

Neurri horien artean, Eusko

8 de marzo: 8 principios para una representación equilibrada

“Las mujeres están infrarrepresentadas en la toma de decisiones políticas a nivel municipal y enfrentan dificultades específicas para el acceso y participación igualitaria en la política local”. Así se establece en el Informe presentado por Inger Linge² en la 31ª sesión del Congreso de Autoridades Locales y Regionales del Consejo de Europa sobre la participación y representación política de las mujeres a nivel local y regional celebrada el pasado 20 de octubre.

La participación equilibrada de mujeres y hombres en la toma de decisiones es un requisito previo de cualquier sociedad democrática. Así se afirma en la Carta Europea para la Igualdad de mujeres y hombres en la vida local y se insta a que los gobiernos locales tomen todas las medidas y adopten las estrategias necesarias para promover una representación y una participación equilibradas de mujeres y hombres en todos los ámbitos locales de toma de decisiones.

Entre estas medidas, el artículo 23 de la Ley 4/2005 para la Igualdad de

Legebiltzarrak onartutako Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. artikulua xedatzen duenez, "euskal agintari publiko guztiek beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatueta kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutako arteen trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauak neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte". Aipatutako Lege horretan, profesionalen, enpresaren, ekonomia sozialaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakunde zuzendaritzako organoetan emakume eta gizonen presentzia ordezkatu buruz hitz egiten da. Horretarako, zuzendaritzako organoetan emakumeen presentzia areagotzea ahalbidetzen duten neurrien arabera dagozkien dirulaguntzak egokitu ahal izango dituzte, eta ezin izango diren inolako laguntzarik eman hautaketa-prozesuan edo lan-jardunean sexua dela-eta bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak.

Udal-eremuan, EAeko udaletako %24,7an soilik daude emakume alkateak, eta euskal herritarren %18,82 ordezkatzen dute. 2015ean, alderdi politikoek hautakunde-zerrendetako %32,58an soilik aukeratu zituzten emakumeak

Mujeres y Hombres aprobada por el Parlamento Vasco establece que "todos los poderes públicos vascos deben promover que en el nombramiento y designación de personas para constituir o formar parte de sus órganos directivos y colegiados exista una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada. A tal fin, adoptarán las medidas normativas o de otra índole necesarias". La citada Ley también hace referencia a la presencia equilibrada de mujeres y hombres en los órganos de dirección de las asociaciones y organizaciones profesionales, empresariales, de economía social, sindicales, políticas, culturales o de otra índole previendo que las administraciones públicas vascas puedan adecuar las subvenciones que les correspondan en función de la adopción de medidas que posibiliten un incremento de la presencia de mujeres en aquellos órganos de dirección en los que están infrarrepresentadas y no puedan conceder ayudas a las asociaciones y organizaciones que discriminen por razón de sexo en su proceso de admisión o en su funcionamiento.

En el ámbito municipal, sólo un 24,7% de los consistorios de la CAE son presididos por alcaldesas y éstas representan un 18,82 % de la población vasca. En 2015, los partidos políticos han optado por colocar a mujeres como cabezas de lista solamente en el 32,58% de las listas electorales; y en cuanto a la

zerrendaburu izateko, eta, iraunkortasunari dagokionez, emakumeek abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago iraun ere.

Euskadin gehiengoa duten sindikatuen artean, batean bakarrik da emakumezko bat idazkari nagusia; era berean, Euskadin egoitza duten erakunde finantzarioetako batean ere ez dago emakumezko lehendakariarik, eta erabakitze organo garrantzitsuetan %22,6 soilik dira emakumeak.

Elkarteetako emakume eta gizonen parte-hartzeari buruzko ehunekoei dagokienez, genero-ezberdintasun nabarmenik ez badago ere, tradizioz rol femeninoa duten elkarteetan gehiago dira emakumeak: hezkuntza, erlijio, garapenerako lankidetzak eta gizarte-laguntzako elkarteetan. Kirol, politika, sindikatu, lanbide, arte eta herritarren esparruko elkarteetan, aldiz, nagusitasun txikiagoa dute.

Bestalde, emakumeen elkarteek, oro har, aurrekontu eta eragin-gaitasun mugatua izan ohi dute udal politiketan.

Egoera horren JAKITUN, **IRURAKO Udalak, aho batez**, Europako Txostenaren gomendioak eta Emakumeek eta Gizonek Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005

permanencia, las mujeres tienden a ascender a menor ritmo y permanecer menos tiempo en posiciones de liderazgo.

Entre los sindicatos mayoritarios de Euskadi, sólo uno tiene a una mujer como Secretaria General y ninguna de las cuatro entidades financieras con sede en Euskadi tienen una presidenta, estando las mujeres representadas apenas en un 22,6 % en sus órganos de decisión más importantes.

Si bien no hay diferencias relevantes de género en cuanto al porcentaje de participación de mujeres y hombres en asociaciones, las mujeres son mayoría en asociaciones vinculadas con su rol tradicional femenino: asociaciones educativas, religiosas, de cooperación al desarrollo y asistencia social mientras que tienen menor prevalencia en las deportivas, políticas, sindicales, profesionales, artísticas y de vecinos y vecinas.

Las asociaciones de mujeres, por su parte, cuentan en general con presupuestos y capacidad de incidencia limitadas en las políticas municipales.

CONSCIENTE de esta situación, **el Ayuntamiento de IRURA , por unanimidad de los presentes**, asume las recomendaciones del Informe europeo y los compromisos derivados de la Carta Europea para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Vida Local y las obligaciones establecidas en la Ley 4/2005 para la

Legean ezarritako betebeharrak ere, honako honetarako konpromisoa hartzeaz gain:

1. Kontsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua eta tokiko edozein organotarako izendapenak bermatzea, betiere, sexueta batek ere ez dezan %40tik beherako ordezkariak izan (emakumeen parte-hartzea sustatzeko egitura espezifikotik izan ezik).
2. Zenbait mekanismo ezartzea, hautatutako emakume ordezkariak eskumen-banaketa edo funtzio-esleipen estereotipatuak edo bestelako diskriminazio- edo jazarpen-moduen eraginpean izatea eragozteko.
3. Parte-hartzea eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, ordutegien eta lan-metodoen eta herritarrei laguntzeko sistemen bidez.
4. Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jasotzea, bideratu eta publiko egitea, itxura sistematikoa emateko, tokiko esparruan emakumeen parte-hartzearen bilakaeraren

Igualdad de mujeres y hombres y se **compromete a:**

1. Garantizar la representación equilibrada de mujeres y hombres en sus órganos consultivos y de toma de decisiones, así como en sus nombramientos para cualquier organismo local, de forma que ninguno de los sexos esté representado por menos de un 40% (a excepción de las estructuras específicas de fomento de la participación de las mujeres).
2. Establecer mecanismos para evitar que las representantes elegidas se vean afectadas por formas estereotipadas en el reparto de competencias o atribución de funciones, o por cualquier otra forma de discriminación o acoso.
3. Introducir medidas que permitan conciliar la participación con la vida personal y familiar tanto a través de sistemas de horarios y métodos de trabajo como a través de sistemas de apoyo al cuidado.
4. Recoger, procesar y hacer públicas estadísticas desagregadas por sexo, de forma sistemática, para dar

jarraipena egin eta analisi horren araberako neurri zuzentzaileak ezartzeko.

5. Emakumeen parte-hartzea indartuko duten guneak eta sareak sendotzea; hala nola, emakumeen etxeak, jабekuntza eskolak eta/edo udal berdintasuneko kontseiluak, eta emakume hautetsientzako 'Virginia Woolf Basqueskola' jабekuntza-eskolak bezalako programetan parte har dezaten ahalbidetzea.

6. Udalerriko emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren sustapena ahalbidetzen duten ekintza espezifikoa ezartzea modu inklusiboan, bereziki talde txikiak kide direnean.

7. Udalerrian gauzatzen diren parte-hartze prozesuek genero ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzea.

8. Udaletako berdintasun-sailetan eta gainerako udal-sailetan neurri horiek gauzatu ahal izateko baliabide nahikoak jartzea.

seguimiento a la evolución de la participación de las mujeres a nivel local y desarrollar medidas correctoras en base a este análisis.

5. Fortalecer espacios y redes que fortalezcan la participación de las mujeres tales como Casas de las Mujeres, Escuelas de Empoderamiento y/o Consejos de Igualdad Municipales; y facilitar el acceso a programas como la escuela de empoderamiento para mujeres electas 'Virginia Woolf Basqueskola'.

6. Implementar acciones específicas que faciliten el empoderamiento y el fomento de la participación sociopolítica de las mujeres del municipio, en particular de aquellas pertenecientes a grupos minoritarios de forma inclusiva.

7. Garantizar que los procesos de participación ciudadana desarrollados en el municipio incorporen la perspectiva de género.

8. Dotar de los recursos necesarios a las áreas de igualdad y resto de áreas municipales para poder llevar a cabo estas medidas.

Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko xedez, alderdi politikoei eskaera egiten diegu konpromiso hauek eta beste eragile politiko eta sozialentzat ereduak diren neurriak har ditzaten.”

Con el mismo objetivo de fortalecer la participación social y política de las mujeres instamos a los partidos políticos a que hagan suyos estos compromisos y adopten medidas que sean referenciales para otros agentes políticos y sociales.”

Olaia Nieto zinegotziak bi kontu aipatu nahi ditu: seigarren, zazpigarren eta zortzigarren ataletan udalei buruz hitz egiten da, eta Gobernu Taldeari galdetu dio ekimenik egitea pentsatu ote duten eta gizarte-zerbitzuen arloan aldaketarik izan ote den aurtengo aurrekontuan. Izan ere, konpromisoak onartu ez ezik gero gauzatu egin behar dira.

Alkateak erantzun dio Udala Diputazioko Berdin Bidean saioan dagoela eta aurrekontuan gizarte-zerbitzuen arloan igoera izan dela (2.500 euro berdintasunean).

HAMARGARREN GAIA

GUERNICA GERNIKARA MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

“1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picasso margolari eta artistak “Guernica” margolana egin zuen. Lan horrek egun batzuk lehenago euskal herritarren gune kuttuna eta esanguratsuenetako bat zen Gernikak jasandako bonbardaketa eta sarraskia salatzen ditu. Condor Legio naziak egin zuen bonbardaketa hura, Francoren agindupean. Beraz, aurren 80 urte betetzen dira, bai bonbardaketatik bai horren aurka egin zen garrasi artistikotik. Urteurren hau gernikarren eta euskal herritarren beste eskaera eta garrasi bat zabaltzeko ere une egokia dela irizten dugu: “Guernica” margolana Gernikan egon dadila behin betikoz. Margolana 1937an egin zen eta Parisko Erakusketa Unibertsalean kokatu zuten. Harrezkero, mundu guztian ezaguna bilakatu da, giza eskubideen zapalkuntza eta gerraren eta herritarren aurkako jazarpena ozenki salatzen dituelako. Aipatutako artelanak ez du zentzurik Gernikari eta haren historiari loturik ez badago, hark eraman baitzuen margolari ezaguna gertatu zenaren izugarrikeria salatzeri. Horren jakitun, Gernikak eta Euskal Herriak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan dute aipatutako margolana Madrilgo Reina Sofia Museoan egon ordez, Gernikan bertan egotea dela aproposena. Behin baino gehiagotan eskari hau luzatu arren, Madrilgo Gobernu ezberdinek, bereziki garraio- eta mantentze- arazo teknikoak aipatuz, ez digute “Guernica”

etxera ekartzen utzi. Gaur egun, Euskal instituzioek ez dute arazorik beharrezko garraio- eta mantentze-baldintza guztiak betetzeko, eta, horregatik, argudio hori ez da sinesgarria. Beste behin ere, Madrilgo Gobernuaren interes ekonomiko zein politikoak daude “Guernica” Euskal Herrira ez ekartzeko arrazoi nagusien artean. Sufrimendu guztien aitortza egingo duen memoria historiko bat eraikitzea ezinbestekoa den honetan, beste behin ere, margolan honek, bonbardaketa jasan behar izan zuen Gernika herrian oinarritzen denak, indarra eta salaketa bikoiztu egiten dituela aldarrikatu nahi dugu. Eta ezinbestean “Guernica”-k Gernikan egon behar duela. Ondorioz, honako mozio hau aurkezten dugu Irurako Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

1.- Udal honek adierazten du Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sarraskian oinarritutako Picasso-ren “Guernica” margolanaren kokapenik egokiena Gernika dela. Udal honek adierazten du gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela. Ondorioz, “Guernica” Gernikara ekartzeko eskaera formala egin dio Espainiako Gobernuari eta zehatz-mehatz Kultura Ministerioari.

2.- Udal honek Eusko Jaurlaritzari dei egin dio Picassoren Guernica margolana Gernikan kokatu ahal izateko beharrezkoak diren urrats instituzionalak eman ditzan. Eta margolan hori Gernikan kokatzeko azpiegitura- eta egokitzapen-lanetan lagun dezan ere.

3.- Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaldu nahi izan zuen salaketa, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.

4.- Udal honek erabaki honen berri emango die Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernuari eta Kultura Ministerioari.

Udalbatzak aho batez erabaki du mozioa onartzea.

HAMAIKAGARREN GAIA

TOLOSALDEKO GILTZARRIAREN MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

“Tolosaldeko Giltzarria herritar dinamika da, Tolosaldeko Gure Esku Dagoren enbor beretik sortua, eta gure herrian ere badu ordezkari zabal bat. Martxoaren 19ko galdeketa antolatzea du xede, erabakitzeko eskubidea aldarrikatzetik egikaritzera pasaz.

Eskualdeko herritar orenen bilgune izan nahi du Giltzarriak, erabakitzeko eskubidea, emaitzaren gaineratik, gizarte kohesiorako dagoen tresna egokiena

baita. Nolako Euskal Herria nahi dugun erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, eskualdearen indarraz, eskualdeko biztanlearen iritzia babesaz.

Udal honek, herritarren ordezkariak duen heinean, begi onez ikusten du >Martxoaren 19ko galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan parte hartzera, iritzia agertzera. Herri bat garelako, erabakitze eskubidea dugulako eta herritarren garaia delako.

Guztion parte hartzea ezinbesteko baldintza da erabakitzeko ariketa bat aurrera eramateko. Guztiok gara giltzarri. Martxoaren 19an, erabaki nahiaren espresio izango gara, ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri.

Europar martxan dabilen trena Euskal Herriko geltokira iritsi da, baita guk gobernatzen dugun herrira ere. Bertara igotzeko gonbitea luzatzen dizuegu herritar guztioi, honako galderaren inguruan zure iritzia ematera:

Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?

Irudikatu dezagun jende zoriontsua herri libre batean.

Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu!"

Udalbatzak aho batez erabaki du mozioa onartzea.

HAMABIGARREN GAIA

GALDE ESKEAK. Gai hauek joratu dituzte:

a) Jose Ignazio Imaz zinegotziak adierazi du jakinarazi dutela proiektu bat iritsi dela Udalera baina ez dela horren berri eman batzordean, eta galdetu du batzordera ekarri gabeko gai gehiago ote dauden. Bereziki, AEK Mintza Lagun proiektua zergatik ez den batzordera iritsi.

Marta Castrillo zinegotziak erantzun dio AEK taldearekin egon zirela, eta aurrekontua bidaltzekotan geratu zirela eta zinegotzia eta udal-teknikaria bakarrik izan zirela.

Jose Ignazio Imazek galdetu du teknikaria zentsuratu ote duten: gai batzuk eramango direlako batzordera eta beste batzuk ez.

Marta Castrillok erantzun dio beti komentatzen dutela zer eraman batzorrera eta zer ez, baina teknikariak prestatzen dituela deialdiak eta gaiak. Zentsuratu, ordea, ez dutela zentsuratzen.

Ainhoa Ugalde zinegotziak esan du txiripaz izan dutela gaiaren berri, eta, ondorioz mesfidantza sartu zaiela.

Marta Castrillo zinegotziak azaldu du AEK taldeari esan ziola gehiegizkoa zela udal honentzat eta orain arte bezala jarraituko zutela. Geroago aurrekontua jaisten bazuten ikusiko zutela.

b) Jose Ignazio Imaz zinegotziak galdetu dio idazkariari nola dagoen aktaren grabazioa.

Idazkariak erantzun dio enpresa bati eskatu diola aurrekontua baina oraindik ez duela erantzunik jaso.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak amaitutzat eman du bilera 19:45ean. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari naizen aldetik.

ALKATEA

IDAZKARIA